



GENERO-ERAGINAREN EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA
EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEN LEGEA (5/1990
LEGEA, EKAINAREN 15EKOA) BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO
LEGE-AURREPROIEKTUA

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza
Bilbao, 2013ko azaroaren 22a

**GENERO-ERAGINAREN EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA. EUSKO
LEGE BILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEN LEGEA (5/1990 LEGEA, EKAINAREN
15EKOA) BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUA**

AURKIBIDEA

Orr.

- A. Lege-aurreproiektuaren deskripzioa eta emakumeen eta gizonen egoeraren azterketa. 1
- B. Genero-eraginaren aurretiazko balioespena. Eraginaren balioespen orokorra. 6
- C. Emakumeen eta gizonen berdintasun ezak murrizteko edo ezabatzekeo neurriak, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko neurriak. 8



GENERO-ERAGINAREN EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA. EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEN LEGEA (5/1990 LEGEA, EKAINAREN 15EKOA) BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO LEGE AURREPROIEKTUA

Ebaluazio-txosten hau prestatu dugu Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen 19. eta 20. artikuluetan ezarritakoarekin eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako artezpideekin bat etorri (2007ko otsailaren 13ko Erabakia, EHAren 53. zk., martxoaren 13koa), EMAKUNDEri aurkeztu eta erakunde horrek bere egiaztapen-txostena eman dezan.

A. LEGE-AURREPROIEKTUAREN DESKRIPZIOA ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERAREN AZTERKETA

1.- Arau-xedapena

Lege-aurreproiektua

2.- Aurreproiektuaren izena

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea (5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa) bosgarren aldiz aldatzeko lege-aurreproiektua

3.- Igortzen duen administrazio-organoa

Segurtasun Saila, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzaren eskariz

4.- Aurreproiektuaren xedea

Zati batean aldatzea Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea, bai espainiar estatuko oinarriko hauteskunde-legeriak sartutako aldaketak geure legean jaso eta geure legera egokitzeko (batik bat, Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoa aldatzen duten urtarrilaren 28ko 2/2011 eta 3/2011 Lege Organikoetan jasotakoak), bai Espainiako Konstituzio Auzitegiaren doktrina nahiz hauteskunde-administrazioak finkatutako gomendioak jasotzeko.

5.- Aurreproiektuarekin zerikusia duten bestelako arauak, planak, etab.

a) EAEko legeak:

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena
- 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeena
- 15/1998 Legea, ekainaren 19koa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea aldatzen duena



- 6/2000 Legea, urriaren 4koa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea aldatzen duena
- 1/2003 Legea, martxoaren 28koa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea aldatzen duena Artekariak eta Ahaldunak izendatzeari dagokionez
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako (Laugarren azken xedapena)
- 6/2010 Legea, abenduaren 23koa, Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Institutuzionalari buruzkoa

b) Espainiar estatuko legeak:

- 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde-araubide orokorrarena
- 1/2003 Lege Organikoa, martxoaren 10ekoa, Hauteskunde-araubide orokorraren Lege organikoa aldatzen duena
- 9/2007 Lege Organikoa, urriaren 28koa, Hauteskunde-araubide orokorraren Lege organikoa aldatzen duena
- 2/2011 Lege Organikoa, urtarrilaren 28koa, Hauteskunde-araubide orokorraren Lege organikoa aldatzen duena
- 3/2011 Lege Organikoa, urtarrilaren 28koa, Hauteskunde-araubide orokorraren Lege organikoa aldatzen duena alderdi politikoak legez kanpo uzteagatik hautagai-zerrendak baliogabetzeari dagokionez
- 51/2003 Legea, irailaren 2koa, ezgaitasuna dutenen aukera-berdintasun, bereizkeriarik eza eta irisgarritasun unibertsalarena (Bosgarren azken xedapena).
- 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa

6.- Gizonen eta emakumeen egungo egoera aurreproiektuak ukitutako eremuan

Aurreproiektuak ukitutako eremua Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeena da. Gizonek eta emakumeek eremu horretan egun bizi duten egoerak errotiko aldaketa izan du 2005, 2009 eta 2012ko euskal hauteskunde autonomikoetan emakumeen eta gizonen eskuartze oso, orekatu eta berdinari dagokionez, hain zuzen ere Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen laugarren azken xedapena aplikatzearen ondorioz (4/2005 Legea, otsailaren 18koa); izan ere, xedapen horrek ordura arteko gabetia demokratikoarekin amaitu zuen, bai hautagai-zerrendak eratzean emakumeek jasaten zuten bereizkeriari zegokionez (hala titularrak nola ordezkakoak) bai sufragio pasiborako eskubidearen egikaritzan nahiz Eusko Legebiltzarrean 1980tik 2004ra emakumeek izan zuten ordezkagarritasunean jasan zuten bereizkeriari zegokionez ere.

Halaber, emakumeek hauteskunde-prozesuaren izapideetan duten eskuartzeari dagokionez ere, gabeziak antzematen dira hautes-mahaietako kide izateko aurkez ditzaketen aitzakiei dagokienez; izan ere, egun, Eskualdeko Hauteskunde-batzordeek ez dituzte onartzen haurdunaldi aurreratuan dauden (gaixorik egon gabe) edo edoskitzaro naturalean dauden emakumeek aurkeztutako zenbait aitzakia.

7.- Aurreproiektuaren helburu nagusiak eta zer neurritan bultzatzen duten gizonen eta emakumeen berdintasuna

Aurreproiektuaren helburu nagusia da 2011ko Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoaren aldaketak eguneratzea eta gure legea aldaketa horietara egokitzea, testuaren artikuluen kalitatea hobetuz eta estatuko lege organikoko manuekin alderatuta egon litezkeen kontraesanak ekidinez.

Edonola ere, emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko helburuak ere jasotzen dira. Hauteskunde-batzorde eskudunek hartzen duten zenbait erabaki ekidin nahi da, hain zuzen ere hautes-mahaietako kide ez izateko emakumeek aurkeztutako aitzakiak ezeztatzen dituztenak. Kasu horietan, aurreproiektuak hautes-mahaietako kide ez izateko beste aitzakia batzuk aurreikusten dizkie emakumeei, gizonetik bereizkeriak eta ezberdintasun-egoerak saihesteko. Hartara, aurreproiektuak aldatu egiten ditu Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 42.3 artikuluko d) eta e) hizkiak. Aldaketaren ondorioz, honela geratzen dira hizkiok:

- d) Haurdunaldian seigarren hilabetetik aurrera eginda dauden emakumeak
- e) Bederatzi hilabetera arteko haurrari bularra ematen ari direnak

Horrek esan nahi du, aurrerantzean, egoera horretan dauden emakumeak aitzakia hori jar diezaioketela hauteskunde-administrazioari hautes-mahaietako kide ez izateko.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde-batzordeak 2005eko martxoaren 17an hartutako erabakia betez –hautagai-zerrenden osieran gizonen eta emakumeen berdintasuna bermatzeari buruzkoa (EHAA, 54. zk., 2005-03-18)-, bosgarren idatz-zati bat eransten zaio aurreproiektuaren 50. artikuluari

hautagai-zerrendetako ordezkioak hautatzerakoan gizonen eta emakumeen berdintasuna bermatzeko eta generoagatiko bereizkeria ezabatzeko.

Azkenik, aurreproiektuaren testua hizkera ez sexistara egokitu dugu, emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrerabide eragingarria egin aldera.

8.- Emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko helburu zehatzak

Aurreproiektuaren edukia kontuan hartuta, ez ditu helburu zehatzak aurreikusten emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko.

9.- Helburu orokorrak lortzeko neurriak eta prozedurak

Aurreproiektuaren edukia kontuan hartuta, ez du aurreikusten neurririk ez prozedurarik emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko helburu orokorrak erdiesteko, horiek Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legean (5/1990 Legea) eta Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoan aurreikusten baitira.

10.- Emakumeen eta gizonen berdintasun-helburuak lortzeko neurriak eta prozedurak

Aurreproiektuan eta 1990eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legean aurreikusitakoetatik at, ez dugu aurreikusten neurri edo prozedura zehatzik emakumeen eta gizonen berdintasun-helburua erdiesteko.

11.- Aurreproiektua aurrera eramateko aurreikusitako baliabide ekonomikoak eta zer neurritan bultzatzen duten gizonen eta emakumeen berdintasuna

Aurreproiektua aurrera eramateko aurreikusitako baliabide ekonomikoak aurreproiektuarekin batera aurkeztutako memoria ekonomikoan jasotakoak dira. Hori horrela izanik, ez dago proportzio zehatzik zuzenean edo zeharka bideratuta gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzera.

12.- Aurreproiektua betearazitakoan, gizonengan, emakumeengan eta berdintasunerako aurrerabide eragingarrian izandako benetako eragina aztertzeko adierazgarriak eta mekanismoak.

Ez ditugu aurreikusi.

13.- Aurreproiektuaren zabalkundea egiteko erabiliko diren kanalak

Zabalkunde-kanalak hauek izango dira:

- * Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratzea
- * Eusko Legebiltzarreko webgune ofizialean zabaltzea
- * Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea
- * Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderen testu bateginaren liburu bat argitaratzea
- * Testu bateginaren edukiaren berri zabaltzea euskadi.net webgunean

14.- Aurreproiektuaren azterketa egiteko interesgarri izan daitezkeen beste alderdi batzuk

Ez ditugu aurreikusi.



B. GENERO-ERAGINAREN AURRETIAZKO BALIOESPENA

	Bai	Bai	Ez	Daturik ez	Ez dagokio	Erantzunaren zergatia
1.- Murriztuko al da baliabideak eskuragarri izateko eta horiek kontrolatzeari dagokionez gizonen eta emakumeen berdintasun eza?		+ 2				Aurreproiektuak zeharkako eragin positiboa izango du, izan ere, horren bitartez, zenbait ekintza positibo ezartzen da sufragio pasiborako eskubidea genero-bereizkeriarik gabe egikaritzeko. Bermatu egiten da EAEko emakumeak berdintasun-baldintzetan aurkeztu ahal izatea hauteskundeetara eta gai publikoetan parte hartu ahal izatea hauteskunde demokratikoetan hautatutako ordezkarien bidez, betiere emakume- eta gizon-kopuruaren arteko orekari eutsiz.
2.- Murriztuko al da emakumeek eta gizonen eremu horretan duten presentziaren berdintasun eza?					X	Aurreproiektua aplikagarri den eremu zehatzean ez dugu aurretiazko berdintasun ezarik somatzen: Adibidez: Hautes-mahaietako kideak. Ez dago bereizkeriarik gizonen eta emakumeen artean, mahai horietako kideak zozketaz aukeratzen baitira Udal bakoitzeko hautesleen artean.
3.- Murriztuko al da erabakiak hartzeko gaitasunean gizonen eta emakumeek duten partehartzean gertatzen den berdintasun eza?		+ 2				Lege-aurreproiektuak eragin positiboa izango du, izan ere, erabakiak hartzeko gaitasunean gizonen eta emakumeek duten partehartzean gertatzen den berdintasun eza ezabatuko du, hain zuzen ere aitzakia berriak onartuz Hautes-mahaietako kide ez izateko.



	Bai	Bai	Ez	Daturik ez	Ez dagokio	Erantzunaren zergatia
4.- Aurreikusten al da aurreproiektuan jasotako neurriek eta helburuek gizarte jokabideetan nahiz balioetan aldaketarik eragitea emakumeei edo gizonei atxiki ohi zaizkien jokabideei dagokienez?	+ 1					Duen xedea kontuan hartuta, aurreproiektuaren aplikazio eta garapenak eragin positiboa izango du emakumeei nahiz gizonei atxikitzen zaizkien gizarte jarrerak eta balioak aldatzeari dagokionez. Izan ere, apurtu egiten ditu emakumeak zigortu egiten dituzten estereotipoak, kontziliazio ekintza positibo batzuen bidez. Ekintza horiei esker, emakumeek uko egin ahal izango diote hautes-mahaietako kide izateari, hala nahi izanez gero, baldin eta salbuespen egoera berrietako batean daudela bidezkotzen duen egaiztagiririk aurkezten badute,
5.- Bermatu egiten da eskubideak egikaritzea eta, batik bat, bereizkeria saihesteko eta berdintasuna bultzatzeko arauetan eta bestelako tresna juridikoetan ezarritakoa betetzea? Horiek hobetzea aurreikusten al da?	+ 1					Aurreproiektu honetan bermatu egiten da eskubideak egikaritzea eta emakumeen nahiz gizonen arteko bereizkeria saihesteko eta berdintasuna bultzatzeko arauetan eta bestelako tresna juridikoetan ezarritako betetzea.

Eraginaren balioespen orokorra

Oro har, esan dezakegu Aurreproiektuak eragin positiboa izango duela; izan ere, behar adina baliabide ezartzen du Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan gizonek eta emakumeek berdintasun-baldintzetan egikari ditzaten, inolako bereizkeriarik gabe, bai sufragio pasiborako eskubidea bai eskuartze politikorako eskubidea. Era berean, emakumeek hautes-mahaietako kide ez izateko aurkeztutako aitzakiei dagokienez, ekintza positiboak finkatzen dira hauteskunde-prozesuan horiek ebatzerakoan generoa dela-eta bereizkeriarik egon ez dadin; izan ere, egun, Eskualdeko Hauteskunde batzordeek ez dituzte onartzen haurdunaldi aurreratuan dauden (gaixorik egon gabe) edo edoskitzaro naturalean dauden emakumeek aurkeztutako zenbait aitzakia.



**C. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN EZAK MURRIZTEKO EDO
EZABATZEKO NEURRIAK, ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUNA BULTZATZEKO NEURRIAK**

Aurreproiektu honetan ez dago murrizketarik generoa dela eta. Ez dugu eragin negatiborik antzematen ere emakumeen eta gizonen berdintasunerako aurrerabidean.

Iz.: Mikel Martínez Garbizu
HAUTESKUNDE-ZERBITZUKO TEKNIKARIA